

23. TXALAPARTA FESTA
HERNANI, 2009, MAIATZAK 21, 22, 23

MAIATZAK 21, osteguna, arratsaldeko 7,30etan. Biteri Kultur Etxean

Txalaparta gaitzat duen **Hotsez Hots** margo eta eskultura erakusketaren aurkezpena Jose **Luis Elexpe "Pelex"** egilearen eskutik
Erakusketa maiatzak 12, 13, 14, 15, 18, 19, 20, 21, 22 eta 23an irekita egongo da 18:00-20:00 artean, baita larunbata 23-ko eguerdian 12:00 eta 14:00 artean ere

MAIATZAK 22, ostirala, arratsaldeko 7,30etan. Biteri Kultur Etxean
Munduko Beat emanaldi berezia **Madriren Txalaparta** taldearen eskutik

Gaueko 12tan, ATXUR pub-tabernan
Txalaparta party aparta **DJ BARRU** eta txalapartariekin

MAIATZAK 23, larunbata. Ezkiaga pasealekuan (Tilos)
Arratsaldeko 6etatik aurrera

TXALAPARTA FESTA

TXALAPARTA ERROMERIA

Txalaparta saio libreak

Sagardo banaketa

HERNANI Musika Eskolako Alboka, Dultzaina,
Trikitixa eta Txistu taldeak kale bueltan

Arratseko 9tan **HERRI AFARIA**

20 €. Erreserbak Hernani Musika Eskolan. Tf: 943 337050 / jm-beltran@hernani.net

Afal ondoren

TXALAPARTA JAIALDI NAGUSIA

Bertsolariak: Hernaniko Bertso Eskola

Zuaznabar eta **Goikoetxea** txalapartari familietako txalapartariak

Araba: **Asier eta Daniel Gasteizko txalapartariak** + alboka eta akordeoia

Iparralde: **Baxenafarroako txalapartariak**

Nafarroa: **Jo ala jo Baztango txalapartariak**

Bizkaia: **Leioa eta Gallartako Txalaparta Eskoletako txalapartariak**

Gipuzkoa: **Andoingo Txalaparta Eskola**

Madriren Txalaparta txalaparta taldea

HERNANI Musika Eskolako **Ttakun ttan ttakun** txalaparta taldea

Txalaparta Festa gunean "txalaparta merkatu txikia" irekia egongo da (grabaketak, liburuak, bideo eta DVDak, materiala,...)

Oharra: eguraldi txarra egingo balu, larunbateko ekintza guztiak Atsegindegi plaza estalian egingo lirateke

Antolatzaileak:

HERNANI Musika Eskola Publikoa

HERNANI Musika Eskolako TTAKUN TTAN TTAKUN TALDEA

Babeslea:

Hernaniko Udala

Laguntzaileak:

ORONA, Hernaniko Sagardotegiak,

irudiART.com soluciones audiovisuales, Herri Musikaren Txokoa

23.
Txalaparta Festa

Hernani 2009

*Hotsez
Hots*

maiatzak
21/22/23

HOTSEZ HOTS ERAKUSKETA

Hemen aurkezten dudan erakusketa hau duela bi urte hasitako egitasmoaren emaitza da. Hotsez Hots du izena eta Txalaparta hartzen du gaitzat: txalaparta bere osotasunean.

Nolatan bururatu zitzaidan honi ekitea?

Hasiera-hasieratik mugimendu asko duen zerbait egin nahi nuen, eta hain gurea den txalapartarekin lotuta sortu zitzaidan. Nire egurlantzeak ere, kolpez kolpe, nolabaiteko txalaparta-hotsak sortarazten dituenek, oso erraz uztartu zitzaizkidan. Eta gainera, herrian ditugun txalapartariei, eta haien izenean Jexux Artzeri, omenaldi txiki bat egitea otu zitzaidan, nire lanari osotasuna eman eta berau borobiltzeko. Horretarako, ikerketa aldetik ere landu beharra izan dut, oso ezberdinak baitira gaurko eta lehengo txalaparta. Liburuak ere dezente irakurria naiz eta hortik atera dira ttakun eta herrenak.

Eskulturak eta pinturak biltzen ditu erakusketa honek. Eta eskulturak oso material ezberdinez eginak: egurra, korten, altzairua, burdina eta zenbait teknika misto erabiliz.

Nire erakusketa hau zuen gustuko izatea espero dut eta nire aldetik konforme geratuko nintzateke Hotsez Hots hau norberak bere baitan sentitzea lortzen badut.

Jose Luis Elexpe *Pelex*

Ikusteko egutegi eta ordutegia:

Maiatzak 12, 13, 14, 15, 18, 19, 20, 21, 22 eta 23an

Ordutegia: 18:00 - 20:00

Maiatzak 21, osteguna, arratsaldeko 7:30etan Biteri Kultur Etxean Hotsez Hots margo eta eskultura erakusketaren aurkezpena Jose Luis Elexpe Pelex egilearen eskutik.



Jose Luis Elexpe Pelex (1969 Usurbil)

-Ofiziala altzari-diseinu eta altzarigintzan
-Euskal tradizioko hamaika zur-lanketa egindakoa (kutxa, landa-altzari, armari,...) beti ere, forma, estilo eta material berrien bilatze eta esperimazioarekin uztartuz
-Zenbait eskultura-ikastaro jasoa Parisen 1998an
-Arte-buztinaren modelatuari buruzko ikastaroa Antonio Oteizak emana 2006an



Harremanetarako:
Kontseju zarra 11 2.D
20170 Usurbil
Tel: 653 712 340
Email: joxeluis_pelex@yahoo.es

23. TXALAPARTA FESTA HERNANI, 2009, MAIATZAK 21, 22, 23

Hernani Musika Eskola Publikoarekin batera eta honen zati bat delarik, 1985-1986 ikasturtean sortutako Hernaniko Txalaparta Eskolak berehala ekin zien musika eta soinu-tresna honek behar zuen ezagupen, erakustearen eta zabalkundearen aldeko Eskola barruko nahiz kanpoko lan eta ekintzei. Bide horretatik, klaseetako ikasketa egitaraua osatze lanez gain, bestelako jardunetan murgildu zen.

Horrela, 1986-1987an, Eskolaren bigarren ikasturtean, beste ekintzen artean Eskolako irakasle eta ikasleek antolaturik eta Hernaniko Udalaren babesarekin, 1987ko apirilean "TXALAPARTA FESTA"ren ibilbidea hasi zen.

Geroztik, urtez urte eta hutsunerik gabe, Txalaparta Festetan parte hartu dutenek edizioz edizio txalaparta inguruko arlo eta mota ezberdinez osatutako ekarpen aberatsa egin dute.

Aurreko hogeita bi urteetan izan den bezala, aurtengo maiatzaren 21, 22, eta 23an, Hernanin 23. Txalaparta Festa ospatuko da, beti bezala HERNANI Musika Eskola Publikoak eta bertako TTAKUN TTAN TTAKUN txalaparta taldeak antolaturik.

Edizio honetan berrikuntzak aurkezten badira ere, aurreko edizioen ildo beretik jarraitzen du, hau da, txalapartaren arlo ezberdinak aztertzen eta aurkezten.

HERNANI Musika Eskola Publikoa
Ttakun ttan ttakun txalaparta taldea
Atzieta 4 / 20120 Hernani
Tel. 943 337050
Email: jm-beltran@hernani.net



MADRILEN TXALAPARTA - MUNDUKO BEAT. Etno-Elektronika - Maiatzak 22, ostirala arratsaldeko 7:30etan Biteri Kultur Etxean

Munduan banatuta dauden hots ezberdinekin musika egin eta entzulea ongi pasatzera gonbidatzen proiektu elektronikoa berria dugu hau.

Munduko Beat-en elektronikak musikal adierazpen honen tradizioa eta abangoardia azaltzen ditu bere alde erritmikoa kubatar perkusioarekin eta aspaldikoa den txalapartarekin osatzen delarik. Maila melodikoan nabarmentzekoak dira zeharkako flautaren eta baxu elektrikoaren doinu iradokitzaileak, festa eta dantzara deitzen dutenak. Taldearen zuzeneko biziak atsedetik gabeko ikuskizuna antolatzen du eta saio elektronikoa baten moduan entzulegoa mugagabeko erritmo eta kolorez osatutako bidaira erakartzen du.

Munduko Beat-eko partaideak:

Iñaki Cortes: *zeharkako flauta eta txalaparta*
Cesar Mosquera (Jefe): *Baxu elektrikoa*
Nacho Carmona (Dj Cheff): *Biniloak eta elektronika*
Juan Calderón: *Kongak, bongoak eta txalaparta*